

Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legearen 44. artikulua ezartzen du herritarrek eskubidea dutela xedapen orokorrak prestatzeko prozesuetan parte hartzeko, iradokizunak igorritz.

Hori oinarri harturik, 2017ko martxoaren 1ean Nafarroako Gobernuaren Gardentasunaren eta Gobernu Irekiaren Atarian argitaratu zen Identifikazio Fiskaleko Zenbakia frogatzeko txartel eredu onesteko foru aginduaren proiektua, ekarpenak, iritziak eta iradokizunak egin zitzaten aipatutako arauaren prestaketan parte hartu nahi zuten interesdunek.

Iradokizunak aurkezteko epea bukatuak, ekarpen bat jaso da, non, adierazten bada ere elebiduna dela foru aginduaren bidez onesten den IFZ frogatzeko txartel eredu, iradokitzen duen txartel horretan agertzen den testu guztia ere ele bitan egon dadila, hots, pertsona fisiko edo juridikoen datu pertsonalen eremuak.

Esan behar da txartel ereduak dituen eremuak desberdinak direla kontuan harturik pertsona fisiko edo juridiko batena den frogatutako identifikazio fiskaleko zenbakia. Foru aginduaren proiektuak adierazten duen bezala:

"Txartelak frogatzen badu pertsona juridiko baten edo nortasun juridikorik gabeko entitate baten identifikazio fiskaleko zenbakia, honako datu hauek izanen ditu: sozietate edo entitatearen izena edo izen soziala; anagrama, halakorik badu; egoitza fiskala eta egin deneko data.

Identifikazio fiskaleko zenbakia frogatzen duen txartela pertsona fisiko batena bada, datu hauek izanen ditu: identifikazio fiskaleko zenbakia; titularraren izen-deiturak eta egin deneko data."

Horregatik, foru aginduaren bidez, identifikazio fiskaleko zenbakia frogatzeko txartel eredu bakarra onetsi da, baliogarria dena bai pertsona fisikoentzat bai juridikoentzat. Inprimatzeko unean, bai Nafarroako Zerga Ogasunaren bulegoetan bai zerbitzu telematikoen bidez, inprimatzen dira bai eskatzailearen datuak bai datu horiei dagozkien kontzeptuak, eta aurreikusia dago ele bitan izanen direla.

Pertsona juridikoen kasuan hauek izanen dira eremuak: DENOMINACIÓN O RAZÓN SOCIAL/SOZIETATEAREN IZENA; ANAGRAMA; DOMICILIO FISCAL/HELBIDE FISKALA eta FECHA/ DATA.

Pertsona fisikoen kasuan, pertsonaren izen-deiturak bakarrik inprimatuko dira, baita data ere, besterik adierazteko eremurik gabe. Hortaz, ezin da euskarara itzuli.

Horretaz gain, txartela orri baten beheko aldean inprimaturik agertuko da, aurretik argibideak emateko testu bat duela, eta hori ere ele bitan izanen da.

Ez da bidezkoa, beraz, proposatutako araua aldatzea, izan ere iradokizunaren edukia aurreikusia zegoen.

Iruñean, 2017ko martxoaren 22an

ARAUEN GARAPEN ETA AHOLKULARITZA JURIDIKORAKO ZERBITZUAREN
EGITURA

José Javier Zabaleta Zúñiga